egunekoa

Afonso Eire

('A Nosa Terra'-ko zuzendaria)

Aldatzeko gogoa

Arelas de cámbio, a Galiza que ven. Lelo horrekin ospatuko du Bloke Nazionalista Galiziarrak uztailaren 25a, Día da Patria. Hauteskunde autonomikoen hurbiltasunak markatuko du ospakizuna. Urrian, ziur aski 22an, Fragak oraindik ez baitu egunaren iragarpen ofiziala egin (Kongresuari bai, jakinarazi egin zion), argi geldituko da zein neurritan sustraituta dagoen Galiziako gizartean aldatzeko gogo hori.

Inkestak bat datoz emaitzetan, eta haiek sinestera, Galizia bi zati berdinetan banatuta geratuko da. Baina Galiziako banaketa-lerroa ez da nazionalisten eta espainolisten artekoa, Euskal Herrian bezala; aitzitik, adinaren ingurukoa da zatiketa nagusia. 40 urtetik beherakoak aldaketaren alde daude, eskatu egiten dute. Gehienek BNGri ematen diote botoa. 30etik azpikoetan nabarmenagoa da joera hori; are gehiago, 25 urtetik azpikoetan.

Bestalde, 45 urtetik gorakoen artean, batez ere landa-inguruetan, gehienek dauden bezala jarraitzea nahiago dute. Zenbat eta zaharrago, orduan eta handiagoa konformismoa edo etsipena. Hala nola honako ziurtasun hau: «Inoiz ez gara hobeto biziko». Dagoeneko pistak daude ia herrixka guztietara heltzeko, baita argi elektrikoa ere, akatsak izan arren, hala nola landa-telefonia, zein oso egokia baita emigratutako senideekin hitz egiteko, baina ez konektatzeko teknologia berriekin. Autobiek, Xuntak eta gobernu zentralak sinatutako akordioaren arabera, 1993an bukatuta egon behar zuten, baina hilabete honen amaieran inauguratuko ditu Aznarrek. Tren lasterra ez dago paperetan bakarrik; Aznarrek eta Fragak lehen zatia ireki zuten uztailaren 21ean Santiagon. «Lehendabiziko harri hau inauguratuta gelditu da» motako politika darabilte. Komunikabideek, guztiz PPren zerbitzuko baitira, errealitate birtual bihurtzen dute edozein proiektu.

Arrainak eta behiak

Zalantza da jakitea zenbaterainoko eragina izango duten behi eroen gaitzak eta landa-ekonomian dituen ondorioek, hala nola Fragaren gobernuak egindako astakeria ugariek, besteak beste animaliak ezkutuan ehorzteak, presidentearen sinesgarritasunean. Izan ere, gobernatu gabe agintzen du, nonahikoa dela ematen du bere makilarekin, baina herriko arazo handietatik kanpo dago. Gainera, Galiziako arrantza sektorea, hirugarren aldiz azken 12 urteetan, Marokoko arrantza-gunea itxi ondoren deseginda gelditu izanak ere eragina izango du.

Gero eta gehiago dira pozik ez dauden sektore ekonomikoak; loturak hautsi besterik ez dute egin behar, diru-laguntzek sortutakoak barne, zein enpresa-kultura bihurtu baitira. *Día da Patria*-n, Quintanatik, horiei guztiei hitz egingo die Xosé Manuel Beirasek, BNGko buruak. Erasoen helburu izan diren sektoreei deituko die, BNGren alde egin dezaten, alternatiba nazionalistari babesa eman diezaioten. Diotenez, herria gainbehera ekonomikotik eta nortasun galtzetik atera dezakeen alternatiba baita. Gauzak aldaraz ditzakeen bakarra.

AZKEN HAUTESKUNDEAK

Galiziako banaketa-lerroa, Euskal Herrian ez bezala, ez da nazionalisten eta espainolisten artekoa, adinaren ingurukoa baizik

GALIZIAREN EGUNA

Batasuna izango dute lagun independentistek; BNGk, berriz, Estatuko gainontzeko alderdi nazionalista ia guztiena

BNGren arabera, arrazoi horiek daramate lasterrean gobernu autonomikorantz. Lasterra izaten ari baita herritarren babesen hazkundea, eta laster konturatzen ari baitira beharrezkoa dela lehenbailehen iristea Raxoirengana, PSOErekin aliantza egin behar bada ere. Blokekoek uste dute hurrengo legegintzaldietan ez bada Galiziatik bideratzen aginte autonomikoa, beranduegi izan daitekeela naziotik gelditzen diren gauza garrantzitsuak salbatzeko: produkzio sistema propioa, batez ere lehen sektorean, hizkuntza eta identitate kolektiboa, nagusiki lurraldeari dagokionez.

Independentistak

Ez dira iritzi berekoak BNGtik ezkerrera dauden talde independentistak. *Nós-Unidade Popular*-ek, adibidez, zeinek «independentismo berria» dela esaten baitu, honako hau dio ospakizunerako prestatu duen agirian: «BNGren kapitulazioaren eta aggiornamento-aren errua da, besteak beste, Galiziaren identitate ezaugarriak galtzea».

Galiziako Fronte Popularrak (FPG) *Día da Patria* bakarrik ospatzea erabaki zuen, eta hauteskundeetan ere bakarrik aritzea. Alderdi horretako buruzagi batek, Mariano Abalok, erabakia hartzeko honako arrazoi hauek kontuan hartu zituztela dio: «Hausturaren aldeko espartrua hutsik egotea, eta gizartearen aurka, bereziki langile klasearen aurka, egindako erasoak».

Bi indar independentistok bat datoz «independentzia eta Galiziako Errepublika» helburuetan, eta haien manifestazioak ordu eta leku berean hasiko dira, eta, zeinek bere bidea egin ondoren, Touralen amaituko dira 14:00etan. Gonbidatuak ere berak izango dira. Batasunarena izango da babes nagusia.

Zergatik ez dira batera manifestatuko, azken urteetan egin bezala? Mariano Abalok «bide itxi bat hautatu izana» leporatzen dio *Nós-Unidade Popular*-i (zein sortu berria baita, eta indar nagusi gisa, besteak beste, AMI eta Primeira Liñá kolektiboak eta APUko aspaldiko militanteak biltzen baititu). N-UPkoek inmobilistak izatea egozten diote FPGri, batez ere hartako buruzagi ideologikoari: Mendez Ferrin idazlea. Beste hainbat kontu taktiko edo pertsonal alde batera utzita, badago desberdintasun bat bi erakundeen artean: FPG galegoarentzako araudi ofizialaren alde dago; *Nós*-ek, berriz, gehienez ere erreintegrazionismoaren alde egiten du, eta zenbait militantek Portugalgo banderak eramaten dituzte.

Batasuna izango dute lagun independentistek; BNGk, berriz, Espainiako ia indar nazionalista guztien laguntza izango du, Batasunarena izan ezik: EAJ eta EA, ERC, Kanariar Koalizioa, *Bloque Valenciá*...

Eta PP eta PSOE? Santiago *Mairu-hiltzailearekin* egongo dira, eta «Espainiaren batasuna eta terrorismoaren amaiera» eskatuko diote, urtero bezala. Ondoren, adierazpen bat zabalduko dute, eta beren galegotasuna nabarmenduko: folklorea, olagarroa, enpanada, Ribeiro ardoa... eta Fraga, hiltzen denean, Galiziar Ospetsuen Panteoira, «Europako mapan kokatutako *nova Galiza*» asmatzeagatik. Entzun dadila Ourenseko Diputazioko Gaiten Errege-Banda eskoziar erritmoak jotzen, Espainiako Armada desfilatzen ari dela! Bai bailiteke Fragaren azken festa izatea...

Erredakzioan itzulia

zutabea



Bixente Serrano Izko

Definizioz

Lau eta nekea du Zortzi Handien taldeak bere itxura apaintzearekin. Azkenaldiko bileren aurreko erreakzioak eta haien oihartzuna ikusita, alarma-argiak piztu zaizkio, kosmetika arloko lehian galtzen hasi ote den beldurpean sartuz. Egia erratera, ez du deus ere estetikaz ulertzen. Naturaltasun osoz uste du, aberats guztiek bezala, abestasuna bera nahikoa dela arrakastaren bidea eta eredu ukaezina zein den adierazi eta denok ontzat emateko. Horrela, bere bileretan, hirurogeita hamar urteetako hamarkadan, hasi zenetik, gero eta agerraldi distirantagoak, areago sobietar ereduaren porrotaren ondoren, egin ditu, aberastasun hutsak berez kosmetikaren beharrizana bete duelakoan.

Baina protesta gero eta jendetsuagoek, gero eta oihartzun zabalekoagoek, gero eta errepresio-neurri neurriz gaindikoagoen «beharrak» pentsatzera eraman dute G-8 taldea, agian aberatsak ere, azal apaingarririk gabe, itsusiak izan daitezkeela. Eta hara non, Bushi bururatu zaio aberats bati burura dakiokeen kluberako kosmetika-lan bakarra: errukiapaindura, alegia. Definizio berria eman dio taldeari: «Errukizko Internazional kontserbadorea». Eta karitate senak bultzatuta, hirugarren mundura joan eta dozena erdi bat eskale gonbidatu du taldeak azkeneko bilerara argazkietan erakusteko. Zinismoa? Ez dut uste. Etika kalbinista dugu hau: aberats zaitez eta ekarri pobre bat mahaira ospakizunetan.

Ez da izanen, dena dela, argazki errukior hori Genuako bilkura historiara eramaten duena. Aberatsen eta gonbidaturiko eskaleen estetika ilunezko hondoaren kontra, brotxa gordinaz egindako orban gorriak, Carlo Giulianiren odol isuriak nabarmenduko ditu benetan, historiari begira, Zortzi Handien taldearen, aberats urrikalkor horien emaitza estetikoak.

Baina, jakina, ez du lekurik urrikiak justiziaren erreinuan. Injustizia, bidegabekeria, bortxakeria, pobrezia, euren gorri-gorrian, kontserbatu behar ditu «Errukizko Internazional» gris horrek definizioz.

kornerra

Mikel Elorza

Zentro arraioa

Espainiaren batasunaz adierazpenak egin ditu Ana Botellak, Espainiako presidente Jose Maria Aznarren emazteak. Santiago egunerako aproposak dira adierazpenok, santua kristauen artizar izateaz gain, espainiarren patroi ere bada, *matamoros* goitizena hartzen duela. Frantsesen Orleansko damaren tankerakoa. Baina bere esaldi batek hunkitu nau, testuko uretatik kanpo arrantzatu dudala dakidan arren: «Komunismoa ere antiglobalizazioa zen». Erantzunak trumilka datozkit, errazenetik hasita: horregatik atxilotzen, egurtzen, hiltzen zenituzten? Baina madame Botellaren esanek bainoago larritzen nau globalizazioaren aurka daudenen aurka hitz egiteko sortu den korronteak. Iritzigileen artean, diot. Biolentoak dira, umemoko aberaskumeak, jokotzat daukate hau... Mundu guztia zentrokoa omen da egun. Erabat eskuinean markatzen dit zentroa iparrorratzak!